EBAZPENA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN BAITA ZERBITZU-EGINKIZUNEN, BEHIN-BEHINEKO ATXIKIPENAREN ETA ORDEZKAPEN BERTIKALAREN BIDEZ ALDI BATERAKO LANPOSTUAK BETETZEKO.

1.- Botere Judizialaren Lege Organikoaren 527. artikuluaren arabera, lanpostu hutsak zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapenen bidez beteko dira aldi baterako, eta 514. artikuluak, berriz, lanpostu huts bati atxikita zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzea aurreikusten du.

2.- Abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak, Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendua onartzen duenak, 69., 73. eta 74. artikuluetan arautzen du zerbitzu aktibora itzultzeari, zerbitzu-eginkizunei eta ordezkapenei buruzko gaia.

3.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura arautzen du.

4.- Deialdi honen xedea da I. eranskinean adierazitako lanpostuak zerbitzu-eginkizunen, behin-behineko atxikipenaren eta ordezkapen bertikalaren bidez aldi baterako betetzea.

5.- Zerbitzu-eginkizuna, behin-behineko atxikipena eta ordezkapen bertikala eskatu ahal izango dituzte Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako, Laguntza Judizialeko eta Auzitegiko Medikuen kidegoetako Justizia Administrazioaren zerbitzuko karrerako funtzionarioek.

6.- Lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera gauzatuko da.

7.- Eskabideak: hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/12050 helbidearen bidez.

8.- Behin-behineko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian. Argitaratzen denetik hiru egun balioduneko epea emango da alegazioak egiteko.

9.- Behin betiko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian.

Vitoria-Gasteiz, sinadura digitalaren egunean

María Dolores Movilla Rivas
Justizia Administrazioko Zuzendaria
Directora de la Administración de Justicia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y DERECHOS HUMANOS

Fecha: 2025.04.08 08:33:54 +02'00'

Dª. María Dolores Movilla Rivas
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA